



Usurbilgo Udala

2024/07/30

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO UZTAILAREN 30EAN
GOIZEKO 9:00ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Xabat Beloki Segurola eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Ainhoa Arrozpide Landa eta Iratxe Begiristain Otegi.

1.- 2024KO EKAINAREN 25EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko ekainaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZEN GARBIKETA ZERBITZUAREN
LIZITAZIOA: ESKAINTZA ONENAREN IZENDAPENA (2024LIRZ0002).**

IKUSIRIK

2024ko maiatzaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrak Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedienteari onespena eman zion, prozedura ireki aruntaren bidez, Europako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratazio Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 15ean amaitu zen eta lizitatzailerik bakarra aurkeztu da: Gureak Garbitasuna S.L.U.

2024ko ekainaren 24ko Kontratazio Mahaian A eta B artxibo elektronikoak ireki ziren. B artxiboan aurkeztutako memoria kirol teknikariari eman zitzaion honen azterketa eta balorazioa egin zezan.

Kirol teknikariak txostena osatu zuen eta bertan eskaintzaren balorapena egin zuen, guztira 34,9 punturekin baloratuz.

2024ko uztailaren 11ko Kontratazio mahaiak kirol teknikariak egindako txostena ontzat eman ondoren, C artxibo elektronikoa ireki zen. Lizitatzailerik honako eskaintza egin zuen:

* Prezioa:

	Lizitazioaren gehienezko aurrekontua BEZ gabe	Eskaintza
1. urtea	179.279,40 €	160.858,86 €



Usurbilgo Udala

2024/07/30

2. urtea	185.374,90 €	165.342,94 €
3. urtea	187.228,65 €	169.916,69 €
4. urtea	189.100,93 €	174.581,93 €
Guztira	740.983,88 €	670.700,42 €

* Hobekuntzak: proposamen guztiak jaso dira.

* Berdintasuna: ez dute eskatzen diren bereizgarri edo ziurtagiririk aurkeztu.

Hau guztia horrela eta Kontratazio Mahaiaren proposamena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Gureak Garbitasuna SLU enpresak eginiko eskaintza izendatzea eskaintza bakar eta hortaz eskaintza onena.

BIGARRENA: Gureak Garbitasuna SLU enpresari errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetako 9. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau Gureak Garbitasuna SLU enpresari jakinaraztea.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2024KO EKAINAREN 25EAN, GRUPO INGEMAR S.L.RI EMANDAKO UDAL BAIMENEAN HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BERMATZEKO EZARRI BEHARREKO FIDANTZAREN KOPURUA ALDATU ETA ZATIKATUA FINKATZEA (2024OHAN0005).

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko ekainaren 25ean, besteak beste, zera erabaki zuen: GRUPO INGEMAR, S.L. (IFK: B20859997) enpresari, Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak eraisteko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Aurrekontua (PEM):	112.650,17 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 10.242,42 €
	Fidantza (%120): 12.290,90 €

Emandako udal baimenean honako baldintza ezarri zen:

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**



Usurbilgo Udala

2024/07/30

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 10.242,42 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (12.290,90 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

12.290,90 €-ko fidantza, Kutxabankeko kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2024-OHAN-0005*" jarriaz kontzeptuan.

ESKAERA BERRIA

GRUPO INGEMAR, S.L. (IFK: B20859997) ENPRESAK, ERAISKETA PROIEKTUAREN ERANSKIN BERRIA AURKEZTU DU, HONDAKINEN KUDEAKETARI DAGOKION BALORAZIOAREN XEHETASUNAK JASOTZEN DITUENA. HORREKIN BATERA, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza bi epetan ordaintzea eskatzen du, fase bakoitza egikaritu aurretik, hain zuzen ere. Horrela, fase bakoitzean jarraian adierazitako fidantza jarri beharko litzateke:

Lehenengo fasea: 2.820 €
Bigarren fasea: 9.470,4 €

TXOSTEN TEKNIKO

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andreak, 2024ko uztailaren 22an honako txostena eman du:

31_2024OHAN005

BULEGO TEKNIKO
Udal Teknikariak Alkate andreaki
OBRA HANDIAK

INGEMARREK HARRIA LANTZEKO ETA AKABERA EMATEKO ERABILTZEN ZITUEN INSTALAZIO ZAHARRAK OSORIK ERAISTEKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: Grupo Ingemar SL
ORDEZKARIA: M^a Aranzazu Fernández García
ESKAERA: Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak osorik eraisteko baimena
ESKAERA DATA: 2024-03-18
KOKAPENA: Aranerreka kalea, Usurbil
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2024-OHAN-005
AURREKONTUA (PEM): 112.650,17 euro

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 10.242,42 € FIDANTZA (%120):
12.290,90 €



Usurbilgo Udala

2024/07/30

2024ko uztailaren 18an, Fernando Lopez de Arechavaleta Aguayok, Arcaya Solar, SL enpresaren izenean dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

AURREKARIAK

2024ko martxoaren 18an, M^a Aranzazu Fernández García, Grupo Ingemar SL enpresaren izenean, Ingemarrek harria lantzeko eta akabera emateko erabiltzen zituen instalazio zaharrak osorik eraisteko baimena eskatu zuen.

2024ko apirilaren 17an Ur Agentziak idatzia aurkeztu zuen eraisketa lanak baimentzeko eskaera jaso dutela jakinaraziz.

2024ko apirilaren 26an udal arkitektoak dokumentazio osagarria eskatu zuen.

2024ko ekainaren 11n, Fernando Lopez de Arechavaleta Aguayo jaunak, Arcaya Solar, SL enpresaren izenean dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

2024ko ekainaren 13an udal arkitektoak aldeko txostena eman zuen.

2024ko ekainaren 25ean Tokiko Gobernu Batzordeak eraisketa baimena eman zuen, besteak beste, hondakinen kudeaketari dagokion 12.290,90 €-ko fidantza jartzeko baldintzapean.

TXOSTENA

Aurrekarietan esan bezala, eskaera orriarekin batera interesdunak eraisketa proiektuaren eranskin berria aurkeztu du, hondakinen kudeaketari dagokion balorazioaren xehetasunak jasotzen dituena, hain zuzen ere. Bertan, eraisketa proiektuak jasotzen dituen bi faseei dagokien hondakinen kudeaketaren balorazioa zehazten da:

Lehenengo fasea: 2.350,00 €
Bigarren fasea: 7.892,00 €

Dokumentuan adierazten denez, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza bi epetan ordaintzea eskatzen da, fase bakoitza egikaritu aurretik, hain zuzen ere. Horrela, fase bakoitzean jarraian adierazitako fidantza jarri beharko litzateke:

Lehenengo fasea: 2.820 €
Bigarren fasea: 9.470,4 €

Aurkeztutako dokumentazioa eta espedientea aztertu eta gero, eskaera bidezkotzat jotzen da eta hondakinen kudeaketari dagokion fidantzaren zatikapena onargarria dela deritzot.

ONDORIOA

Goian esandakoa kontuan izanik honako hau proposatzen da:

LEHENA: Grupo Ingemar SL enpresaren eskaera aintzat hartzea.



Usurbilgo Udala

2024/07/30

BIGARRENA: 2024ko ekainaren 25eko obra baimenean ezarritako hondakinen kudeaketari dagokion fidantzaren kopurua aldatu eta zatikatua finkatzea:

Lehenengo fasea egikaritu aurretik: 2.820 €
Bigarren fasea egikaritu aurretik: 9.470,4 €

HIRUGARRENA: Erabakiaren berri interesatuari eta kontuhartzailletza sailari ematea.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalarari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.
Udal arkitektoa
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GRUPO INGEMAR, S.L. (IFK: B20859997) enpresaren eskaera aintzat hartzea.

BIGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko ekainaren 25ean, emandako udal baimenean hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko ezarri beharreko fidantzaren kopurua aldatu eta zatikatua finkatzea:

- Lehenengo fasea egikaritu aurretik: 2.820 €
- Bigarren fasea egikaritu aurretik: 9.470,40 €
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

2.820 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2024-OHAN-0005- 1. fasea*” jarriaz kontzeptuan.

- **Bigarren fasea egikaritu aurretik:**

9.470,40 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2024-OHAN-0005- 2. fasea*” jarriaz kontzeptuan.



Usurbilgo Udala

2024/07/30

HIRUGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko ekainaren 25ean, emandako udal baimenean ezarritako gainontzeko baldintzak bete beharko dira.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:30k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.